

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Enplegua sustatzera eta ekonomia aktibatzerara bideratuko du Gobernuak 2015eko luzatutako aurrekontua

3.413 milioi €-koa izango da 2015erako aurrekontu ez-finantzarioa, aurreko ekitaldiko baino 30 milioi gehiagokoa

Miércoles, 31 de diciembre de 2014

Enplegua sustatzera, ekonomia aktibatzerara eta osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte politiken arloko zerbitzu publikoak mantentzera bideratuko du Nafarroako Gobernuak 2015ean luzatutako aurrekontua.

Horixe da, hain zuzen ere, Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorren 2015eko ekitaldirako luzapena eraenduko duten gastuen jarraibideetan ezartzen dena.

Hain zuzen ere, 3.413.403.484 €-koa da aurrekontu ez-finantzarioa, 2014koa baino 30,6 milioi € gehiagokoa.

Kopuru horri aurrekontu finantzarioa (379.404.935 €) eta luzapenaren funtsa (44.908.395 €) gehitu behar zaizkio; beraz, luzatutako aurrekontua 3.837.716.814 €-koa da, guztira.

Arloka, gastuari dagokionez, gizarte arloetara bideratu da zatirik handiena, oinarrizko zerbitzu guztiak bermatzeko helburuz.

Horrela, Osasun departamentuak (933,4 milioi €), Hezkuntzak (575,1 milioi) eta Gizarte Politiketako Departamentuak (258,03 milioi) jasotzen dute aurrekontu ez-finantzarioaren % 51,75, 1.766,56 milioi euro, guztira.

Gastuei buruzko jarraibideek garrantzia berezia ematen diote enplegua sustatzeari eta ekonomia eta industria aktibatzerako neurriei.

Hain zuzen ere, 2015ean, 40,03 milioi euro bideratuko dira enplegu politika aktiboetara eta 119 milioi euro ekonomia bultzatzeko eta industria-sarea indartzeko ekintzetara.



2015ean, 160 milioi bideratuko dira enplegu politika aktiboetara eta ekonomia eta industria-sarea bultzatzera

Inbertsio horiek gastuen bigarren multzo handiaren baitakoak dira; multzo hori honako departamentuetara bideratzen da: Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamendua (813,63 milioi); Sustapena (216,09 milioi); Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua (307,6 milioi); eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentua (43,6 milioi €).

Guztien artean, 1.380,9 milioi euroko aurrekontua dute (aurrekontu ez-finantzarioaren % 40,46). Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, berriz, 249,42 milioi euroko aurrekontua izango du.

Gastu ez-finantzarioako aurreikusitako banaketa Nafarroako Parlamenturako (16,01 milioi €) eta Nafarroako Kontseilurako (446.280 €) esleipenek osatzen dute.